

## ADITZ TRINKOAK - ORAINALDIA

Osatu esaldiak aditz trinkoekin **orainaldian**.

1. Gaur zuek euskara azterketa ..... (eduki)
2. Hondartzan nagoenean itsas ertzetik ..... (ibili)
3. Nire ama eta biok mendira ..... (joan)
4. Zuek eskolatik ..... (etorri)
5. Oraindik guk ez ..... nora joango garen oporretan. (jakin)
6. Koadernoak mahai gainean ..... (egon)
7. Zure laguna eta zu bizikletaz ..... (ibili)
8. Oihane, zer moduz ..... azterketa? (eraman)
9. Zure gurasoek adin berdina ..... (eduki)
10. Mikel ez ..... ados Amaiak esaten duenarekin.(egon)
11. Liburutegitik pasatzeko esan didate eta orain hara ..... (joan)
12. Nondik ..... soinu hori? (etorri)
13. Nire hamaiketakoa motxilan ..... (eraman)
14. Ander eta zu hizketan ..... (egon)
15. Hirugarren mailakoak txango batetik ..... (etorri)
16. Zure praketako poltsikoetan bi euro ..... (eduki)
17. Atzo Maitane gaixo zegoen eta gaur medikuarengana ..... (joan)
18. Haiek motxilan liburu guztiak ..... (eraman)
19. Gutxi ikasi du eta orain gaizki ..... azterketa gainditzeko. (ibili)
20. Guk E.T.S. taldeko abesti guztiak ..... (jakin)